

Etxea

Aurkibidea

Sarrera	1
Zarautz, 6.000 euro metro karratuko	1
Zor hotza	2
Hiria, hizkuntza	3
Etxauzia gaztelua	4
Ebazpenak.....	5
Zarautz, 6.000 euro metro karratuko.....	5
Zor hotza	5
Hiria, hizkuntza.....	5
Etxauzia gaztelua.....	5

Sarrera

Ikasgai honetan etxea izango dugu gai nagusi. Ulermena lantzeko ariketak eta mintzamina lantzeko jarduera batzuk ere aurkituko dituzu bertan. Bukatzeko, idazlan bat egin beharko duzu.

Zarautz, 6.000 euro metro karratuko



→ Irakurri eta aukeratu erantzun zuzena.

Zarautz, 6.000 euro metro karratuko

Ekai Txapartegi. *Argia*.

1- Ez dakit eskubidea den edo gobernuen betebeharra. Baina premiazkoa da etxebizitzak eskuragarri egotea. Eta ez daude. Zuzen hitz eginda, honi ez genioke "etxebizitzaren" arazoa deitu behar. Ezta "etxebizitza faltaren" arazoa ere. Etxebizitza garestien arazoa da. Etxebizitzak garesti daudelako gaude hainbeste gazte gurasoen etxean zahartzen.

a- Etxebizitzaren arazoa konpontzea gobernuen betebeharra da, eskubide hori bermatu beharra dutelako.

b- Etxebizitzaren arazo nagusia salneurria da.

c- Gazteak gurasoen etxean daude etxerik ez dagoelako.

2-Gazteekin hitz eginda, berehala ohartuko zara etxebizitzaren salneurria dela arazo nagusia. Inkesta guztiek ere gauza bera esaten dute. Gaztediaren iritzi orokortu hori jarrera politiko bihurtzea falta zaigu. Hortaz, etxeak falta dira? Ez. Gobernuak falta da. Zarautzen, esaterako, etxebizitza hutsak betez gero, Irungo populazioa izango genuke. Pertsiana jaitsien herrian 30 urteko gazte saldoa gurasoen etxean usteltzen uztea gizarte-krimena da.

a- Gazteek pentsatzen duten hori ez da islatzen jarrera politiko jakin batean.

b- Zarautz batek aise hartuko luke Irungo populazio guztia.

c- Gazteak ez dira politikan sartzen; nahikoa dute etxebizitza topatzea.

3-Egungo etxebizitza-politikak gaztediaren sormena eta ekimena murrizten ditu. Gona azpian dagoenak gonazpiko jarrerak hartzen dituelako eta hipotekak itotako gaztea itota bizi delako. Gizartearen zahartzea ere bultzatzen du etxebizitza ziurtatu gabe duenak, edo hainbeste zorpetu denak, ez duelako seme-alabarik ekarriko. Ekonomiaren hoztea ere ekartzen du, etxe hutsak pasiboan daudelako eta inbiliariek eraikitzeari utzi diotelako. Etxebizitzak merkatuz gero, hori guztia alda daiteke.

a- Etxea izatearen edo ezin lortzearen ardura duen gazteak nekez izango du astirik beste edozer sortu edo egiteko.

b- Gustura daude gazteak amaren gona azpian.

c- Egungo etxebizitza politikari esker, etxebizitzak merkatu egin dira.

4-Zergatik daude garesti etxebizitzak? Gobernuak ez duelako egin beharrekoa egiten. Etxebizitzak merkatzeko hartu beharreko neurriak ezagunak dira. Indarrean dagoen lurraren legea aldatu behar da, etxe hutsak merkaturatu behar dira, eta inbiliariek etxeak eraiki eta saltzera edo alokatzera behartu behar dira. Hori ezin dugu gazteok egin, hori gobernuek bakarrik egin dezakete. Herritarron betebeharra neurriok indarrean jarriko dituzten gobernuak ekartzea da.

a- Herritarrok etxebizitzak merkatzeko politikak indarrean jartzen dituzten gobernuak bermatu beharko genituzke.

b- Gazteek sustatu behar dituzte etxebizitzak merkatzeko politikak egiten dituzten gobernuak.

c- Gobernuek ez dakite zer politika egin behar duten etxebizitzak merkatzeko.

5-Etxebizitza sozialek, adibidez, ez dute merkatua merkatzeko balio izan. Batzuek zortea izan dute eta etxebizitza bat tokatu zaie. Baina gehiengoa kanpoan geratu gara. Tonbola batean gure zenbakitxo atera ez delako edo sartzen utzi ez digutelako, ezin dugu gure bizitza-proiektua abiatu? Erantzun hori ez da serioa. Etxebizitzak merkatzeko neurri eraginkorrak hartu behar dira. Krisi ekonomikoak eta bankuek mailegurik ez emateak etxebizitzaren beharrezko merkatze hori hasi du. Prezioak jaisten ari dira, bai erosteko, bai alokairuan hartzeko. Baina etxeak oraindik ez daude eskuragarri. Gehiago jaitsi behar dute. Azken hamar urteetako bidegurutze bera planteatzen

zaie gobernuari: edo gazteekin daude, edo espekulatzailerekin daude. Espekulatzailerekin badaude, zertarako babestuko ditugu guk?

a- Azken hamar urteotako gobernuak espekulatzaileren alde agertu dira eta ez dute inolako neurririk hartu arazo honi konponbidea emateko.

b- Neurri batzuk hartu dira baina ez dira eraginkorrak izan; etxeak ez dira merkatu.

c- Bankuek mailegurik ez emateak etxeak garestiago izatea eragin du.

Zor hotza

2017ko maiatzaren 27an, lau lagun hil ziren Bilboko Zorrotza auzoko etxebizitza batean piztutako sutean.



Argiako artikulua honek gertaera hura du abiapuntu.

→ Irakurri.

Zor hotza

Jose Inazio Basterretxea. *Argia*, 2017-07-02

Errauntsak azaleratu du minbizia, modu gordinenean. Ez genuen uste... baina suak erakutsi digu ustel zirela usteak: miseria gorria dago Bilbo handi eta distiratsuaren baitan. Eta lur gainera agertzen da hura noizean behin, gizarte-zorren zizare akusatzaile.

Askoren gustukoa ez litzatekeen eraikin degradatu batean hil dira etxe bereko bost kide,ugarretan erreta eta ke beltzetan itota... Non? Bada, Zorrotzako Landan: Athletic futbol-taldeak partidak jokatzen dituen katedraletik ordu laurdenera, Deustuko Jesuitek kudeatzen duten unibertsitate ospetsutik kilometro gutxira eta Gurutzetako eskualde-ospitale erraldoitik lau jautzitar.

Zorrotzako sutean hil diren lagunen kopuruak eta beren arteko hurbiltasun familiarak azalera ekarri du gizartearen gordean daukagun arazo eta kontraesan bat: oparotasun eta joritasunaren ondoan, baitan eta erdian ghettoak dauzkagu.

Bazterketa- eta autobazterketa-kasuak gero eta gehiago dira gure artean. Halere, kontzientziak lasai dauzkagu. Katastrofea heldu arte, jakina. Orduan, denak txalapartari.

Ghetto bihurtzeak bilakatzen du esklusioen gaixotasuna sendaezin eta kroniko. Hirigintzan, politika zentripetuak behar dira, zentrifugoak baino gehiago. Politika, pentsamendu eta jarduera inklusiboak behar dira, ez esklusiboak. Ez da erraza bazterketa-kasuetan; eta, agian, zailagoa da autobazterketaren kasuetan.

Edozelan ere, ez dago onartzerik horren degradatuak diren inguruak —bakanak nahiz auzune oso-osoak— egotea, ezagunak baitira arriskuak. Ez dago onartzerik inork negozioa egitea hondaturik eta umildurik diren inguru horiek merkaturatuta. Administrazio publikoek badute hitza eta eskua kontu horietan. Esnatu beharra dute; modu eraginkorrean esnatu ere.

Inoiz, inkisizio inmobiliarioarengandik ihesi, beren buruaz beste egin dute gure auzokideek etxea ordaindu ezinean, bertatik indarrez kaleratuko dituzten mehatxupear, nora joanik ez dutela. Inoiz, heriotza aurkitu dute herritarrek gau batean, bazter-auzo batean, baldintza zantarretan bizi izanda, gizarte oparotsu honetara egokitu ezinik edo egokitu ez nahirik. Inoiz, auzotik kaleratuak izan dira auzotarrak, bestelako bizitza-eredu bat posible dela erakutsi gura

izan dutelako eraikin zaharretan. Kasuistikak ez du muga argirik.

Halere, izugarria da konturatzea mingaina zein isilik daukagun immolazioen sastadak azaldu arte. Ez dugu oraindik gure egin etxebizitza eskubidea dela, propietatea bainoago. Ahula da hori bereganatzen ez duen gizarte-kohesioa. Eta ikusteko dira begiak. Entzuteko, belarriak. Kitatzekoak, zorrak.

→ Zein paragrafok laburbiltzen du ondoen aurreko testua?

A- Oparotasunaren gizarte honek badu zor bat; alegia, etxebizitza izateko eskubidea denoi aitortu behar zaigu, baita behartsuenei ere, eta hori sarritan ahaztu egiten zaigu.

B- Oparotasunak itsututa ez gara konturatzen gure inguruan ere badirela premia larrian bizi diren familiak.

C- Zorrotzan gertatu denak denok esnarazi gaitu —txalapartari bihurtu gaitu—. Honelako gertakariei esker jartzen diegu arreta geure gizartearen arazoei.

Hiria, hizkuntza

→ Bi testu dituzu jarraian: bigarrena lehenengoaren berridazketa da, baina hutsune batzuk ditu. Amaitu jatorrizko testuaren berridazketa; horretarako, erreparatu letra lodiz idatzitakoari. Jarri berba bat hutsuneko.

1- Hiria, hizkuntza

Anjel Lertxundi Esnal. *Berria*, 2011-04-03

Axular —adibidez— zertarako irakurri? Aintzat hartzekoa da Wittgensteinek oparitu zigun hizkuntzaren deskribapen ederra: “Gure **hizkuntza hiri zahar bat kontsidera daiteke**: kaletxoek eta plazak labirinto bat, etxe zahar eta berriekin, eta sasoi desberdinetan **elkarri itsatsitako** etxeen zati desberdinekin; **eta horren guztiaren jiran**, aldiri berriak kale zuzen eta erregularrekin eta etxe uniformeeekin”.

Denboran atzera, ugaritasuna. **Orainera hurbiltzen garelarik**, hizkuntza uniformeago. Han, alde zaharretan, sasoi desberdinen, esperientzia historikoen, mendez mendeko gustu estetikoek, gerren eta egoera ekonomikoen **zantzuak**; hautsak eta hezetan hartutako bazterrak, kolore eroriko hormak, belarrak hartutako teilatuak. Hemen, **material berriekin jasotako etxeak**, eroso itxurakoak, gaur-gaurkoak,

baina denboraren galbaheak **ematen duen nortasunik gabeak.**

Axular —adibidez— zertarako irakurri? **Hiri guztian** ibiltzeko.

2- Hiria, hizkuntza

Anjel Lertxundi Esnal. Berría, 2011-04-03

Axular —adibidez— zertarako irakurri? Aintzat hartzekoa da Wittgensteinek oparitu zigun hizkuntzaren deskribapen ederra: “Gure hizkuntza hiri (1)_____ dezakegu: kaletxoan eta plazen labirinto bat, etxe zahar eta berriekin, eta sasoi desberdinetan (2)_____ itsatsitako etxeen zati desberdinekin; eta (3)_____ jiran, aldiri berriak kale zuzen eta erregularrekin eta etxe uniformeekin”.

Denboran atzera, ugaritasuna. Orainera hurbildu (4)_____, hizkuntza uniformeago. Han, alde zaharrea, sasoi desberdinen, esperientzia historikoen, mendez mendeko gustu estetikoaren, gerren eta egoera ekonomikoaren (5)_____; hautsak eta hezetasunak hartutako bazterrak, kolore eroriko hormak, belarrak hartutako teilatuak. Hemen, material berriekin jaso (6)_____ , eroso itxurakoak, gaur-gaurkoak, baina denboraren galbaheak ematen duen nortasuna (7)_____.


Axular —adibidez— zertarako irakurri? Hiri (8)_____ ibiltzeko.

Etxauzia gaztelua



→ **Entzun arretaz irratsaio hau eta, ondoren, aukeratu ezazu testuarekin bat datorren esaldia.**

Etxauzia gaztelua, euskal kulturaren gunea.

Euskadi Irratia. 2017-02-07 

1

- Aldea dago, dagoenez, Baigorriko gaztelutik Eskoziako edo Gaztelako gazteluetara!
- Garazikoak ez bezala, Loira ibaiaren inguruko gazteluek gerra ekartzen dute gogora.
- [Baigorriko gaztelua](#) herri horretako plazan dago.

2

- Gazteluaren gaur egungo jabeak errestituzioan txukuna egin du gazteluan, eta oso eskuzabala da gazteluarekin.
- Jabea estatubatuarra da eta haren emazteak jatorri euskalduna du.
- Izan dituen jabeek triskantza eta txikizio handiak egin dizkiote gazteluari.

3

- Gazteluaren jabe izan zen bertako jende horrek, egundoko txikizioak egin zituen ikerketa arkeologikoen aitzakian.
- Duela 40 urte baino ez —ez hain aspaldi, beraz—, izugarrizko altxorren bila zebilen jende hori.
- Tenplarioen altxorra aurkitu zuten, baina etxea txiki-txiki eginda utzi zuten.

4

- Denboran atzera eginez gero, agerian jartzen da oso jende ospetsua ere izan zela gazteluaren jabe; tartean zinema-izarren bat.
- Izen handiko euskal familiek ere izan zuten gazteluaren jabetza.
- Etxauziako lorategiak Charles Chaplin eta abadiatar baten arteko pasioaren lekuko izan ziren.

5

- a) Atxagak, beste askok bezala, uste du [Bertrand Etxauz](#) noblea izan zela gazteluko jaberik miresgarriena.
- b) Bertrand Etxauzen aitona izan zen gazteluaren lehen jabea eta, gainera, jabe gorena.
- c) Etxauzian, (hau da, Bertrand Etxauzen etxean) idatzi zen euskal letretako libururik ederrena.

6

- a) Axularrek gomendiozko gutun eder bat idatzion Etxauzi hil ondoan.
- b) Etxauz hil eta *Gero* liburua idazteari ekin zion Axularrek.
- c) Euskal literaturaren testurik ederrenean (*Gero* liburuan) idatzi zuen gomendiozko gutuna.

7

- a) Baigorriko elkarte batek Etxauzia erosteko kanpaina bat jarri du abian Axularren eta Etxauzen altxorrek gordetzeko.
- b) Baigorriko elkarte batek Etxauzia erosi nahi du eta, horretarako, bertako euskaldunei dirua eskatzeko kanpaina jarri du abian.
- c) Baigorriko elkarte batek etxea erosi eta euskaldun guztiontzako errefente bihurtu nahi du, Etxauzen eta Axularren espirituari gorazarre eginez

→ Lotu esanahi bera duten hitzak edo esapideak.

1- Bederen	A. Ahuntzaren gauerdiko eztula / hutsaren hurrengoa (ez da)
2- Helburua eskura	B. Behintzat
3- <i>Aldez edo moldez</i>	C. Belardi
4- <i>Enea da hobena</i>	D. Erraz lortzeko modukoa
5- Aitoren semea	E. Ez zen behin edo bitan etorri, gehiagotan baizik
6- Inor ez gazteluko lehen familia baino gorago	F. Ezertarako balio ez dizuna./Harria iltzearekin zulatu
7- Ez da ezer hori ere!	G. Kaleak
8- Hirutan etorri ere	H. Kapare, leinargi, noble
9- Txit ezagunak	I. Maila bat gorago
10- Txikizio handiak	J. Maila gorenean zeuden
11- <i>Pentze</i>	K. Nirea duzu errua (hutsa)
12- Karrikak	L. Nolabait
13- Koska bat gorago	M. Oso famatua
14- Txotxarekin sua egitea baino , zera, ba, behar duzu babes bat, (...)	N. Triskantza ederrak

Ebazpenak

Zarautz, 6.000 euro metro karratuko

B/A/A/A/B

Zor hotza

→ Zein paragrafo laburbiltzen du ondoen aurreko testua?

A- Oparotasunaren gizarte honek badu zor bat, alegia, etxebizitza-eskubidea denoi aitortu behar zaigu, baita behartsuenei ere, eta hori sarritan ahaztu egiten zaigu.

Hiria, hizkuntza

→ Lotu esanahi bera duten hitzak edo esapideak.

1. zahartzat jo
2. bata besteari
3. ororen
4. ahala
5. aztarnak
6. jaso diren
7. falta dutela / -nak
8. osoan

Etxauzia gaztelua

→ Entzun arretaz irratsaio hau eta, ondoren, aukeratu ezazu testuarekin bat datorren esaldia.

1 A 2 B 3 B 4 B 5 A 6 A 7 C

→ Lotu esanahi bera duten hitzak edo esapideak.

- 1-Behintzat
- 2-Erraz lortzeko modukoa
- 3-Nolabait
- 4- Nirea duzu errua (hutsa).
- 5-Kapare, leinargi.
- 6-Maila gorenean zeuden
- 7-Ahuntzaren gauerdiko eztula /hutsaren hurrengo (ez da)
- 8-Ez zen behin edo bitan etorri, gehiagotan baizik.
- 9-Oso famatua
- 10-Triskantza ederrak
- 11-Belardi
- 12-Kaleak
- 13-Maila bat gorago
- 14-Ezertarako balio ez dizuna/Harria iltzearekin zulatu

Transkripzioa

MAITE ARTOLA.- Bernardo Atxaga, egun on.

BERNARDO ATXAGA.- Egun on, bai.

M. A.- Bai dotorea, Baigorriko gaztelu hori.

B. A.- Eta esan behar dizut ba, zer ondo jarri duzula Mikel Azpirozren piano-musikaz; horrek emango digu babes, ez dakizu? Txotxarekin sua egitea baino, zera, ba, behar duzu babes bat, ba, ez dakit, munduaren haize zakarrak-eta pixka bat aldentzeko.

M. A.- Eraman gaitzazu Baigorriara.

B. A.- Bueno, Baigorriara. Bada Baigorri Nafarroa Beherean, gaztelu bat, itxuraz, goxoa, goxoa (sic), ia krema kolorekoa hormetan, lau dorre tiki dituenak kukurutxo moduko goialdearekin,aldi berean sendoa eta atsegina. Zerikusirik ez gaztelu horrek Eskozian edo Gaztelan aurkitzen diren gotorleku, gaztelu militarrekin. Haiek, gerra bezala, ezpatak, geziak edota katapultak; Garazikoak bakea ekartzen du gogora. Badu antza Loira ibaiaren inguruan ikusten direnekin, eta baita (kukurutxo formako dorreak direla-eta), Olitekoarekin (Erriberrikoarekin). Bera, Garazikoa, ez dago lautada batean, baizik eta gain batean. Baigorriko karririk eta plazak baino koska bat gorago. Mendi, muino eta ibarrez inguratua eta —*pentze* esaten dute han— belardien berdetasunak laguntzen dio udaberrian, basoen gorritasunak udazkenean, elurraren zuritasunak neguan. Hitz batean, Baigorriko gaztelua toki eder-ederra da. Esango dut orain bere izena. Izena du Etxauzia. Nor haren jabe? Ba, gaur egun Azran izeneko negozio-gizon estatubatuarra da, zeinen emaztea, itxuraz, Erratzutik emigratutako familia batekoa den, haren —esan beharra dago hau ere— eskuzabaltasunari esker egiten omen dira bertan noizik eta behin euskal festak eta kultur ekitaldiak.

Lehenago, berriz, Pierne familia baionatarrarena izan omen zen eta hari zor omen zaio gazteluaren errestituzioa, hain txukuna eta egokia, non Frantzia mailako sari bat irabazi zuen horregatik. Eta, lehenago, ba, hau ez nuke nik esan nahi, baina lehenago bertako jende batek —halaxe irakurri dut nik bertako artikulua batean: *the local people*— bertako jende batek erosi omen zuen. Eta, erosi orduko, txikizio handiak egin gazteluan. Han zulatu eta hemen zulatu

M. A.- Etxauzin.

B. A.- Etxauzin, bai. Eta, izan ere, ba, bertako jendeak altxor ikaragarri bat aurkitzea espero zuen bertan, Karlomagnoena edo

tenplarioena, e? Pentsatu, Karlomagnoen edo tenplarioen altxorra aurkitu nahi zuten gazteluan, eta hori orain dela 40 bat urte bakarrik, e? Adierazten du zerbait. Nolanahi ere, aipatutako jabe horiek oraintsukoak dira denak, e? Aurrez, aurreko mendeetan euskal familia txit ezagunak izan ziren bertako, tartean abadiatarrak —bide batez esanda, abadiatar batekin bere izena jarri zuen Harry Abadia Arrast, zinemagilea zen—, ba, harekin etorri zen Etxauzira, hirutan etorri ere, aro modernoko pertsonaiarik ospetsuenetako bat: Charlie Chaplin, Charlot. Bai, Charlot ibili zen, baita ere, Etxauziako hango lorategi hartan pasioan, ez da ezer hori ere! Ondo Charlot. Ondo abadiatarrak eta gainerakoak, baina niretzat eta, nik uste, euskaldun askorentzat, inor ez gazteluko lehen familia baino gorago; inor ez Bertrand Etxauz aiton semea baino gorago. Bera izan baitzen euskal hizkuntzaren babesle eta benefaktorea, berari esker idatzi baitzuen Axularrek euskal literaturako libururik ederrena — *Gero*—, bere laguntzaz erne baitzen XVII. mendean euskal kulturaren pizkundera, Sarako eskola eta gainerakoak. Bertrand Etxauz 1641ean hil zen eta idatzi zuen Axularrek, orduan, tonu elegiakoan —oso ezagunak dira, aizue, baina hain ederrak non berritu egingo ditudan—, idatzi zuen Axularrek Etxauzen heriotzako orduan: “Neure iaun maitea, ioan zataizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki —ez zara zain egon—. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere”. Axularren *Gero* liburuaren hitzaurrean daude, esan bezala, hitz horiek euskal literaturaren testurik ederrenetakoa den gomendiozko gutunean.

Eta Axularren beste hitzok ere han daude, betiere babesle eta laguna gogoan: “Nor da euskal-herrian alde edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa. Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinel, eta begiraille bezala, iratzaririk, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme”. Axularrek hitz horiek idatzi eta ia 400 urte geroago, oraintxe bertan esango genuke, euskaldun bat euro bat diru-biltze kanpaina abiatu zuen Iparraldeko elkarte batek Baigorriko Etxauzia gaztelua erosteko helburuarekin.

M. A.- Bai, gogoan dugu denok kanpaina hau.

B. A.- Hemen ere, uste dut hitz egin zutela, Euskadi Irratian.

M. A.- 3 miloi euskaldun —uste dut— bagara munduan. Gazteluak gaur 3 miloi inguru balio baldin baditu, kontua erraza da: euskaldun bakoitzak euro bat jarriz gero, ba, helburua eskura. Neguko isiltasunaren ondoren udaberri honetan suspertuko omen da —hala idatzi didate— diru-biltze kanpaina. Euskaldun bat, euro bat, bederen, e? Euskaldun bat, euro bat, gutxienez. Baigorriko elkarteak euskaldunen etxe, pausaleku eta portu bihurtu nahi dute berriro ere Etxauzia. Beraiek badakite ondo, gaztelua gordetzen duen altxorra Karlomagnoena edo tenplarioena baino handiagoa da eta hori da Bertrand Etxauzen eta Axularren espiritua.

